

BASERRIA'REN ALDE

Por T. Aristizabal

Presentamos un trabajo que nos remite D. T. Aristizabal, del caserío ARKALE de Oyarzun, escrito como consecuencia de la Exposición de «Modernización Agrícola», organizada por el Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián en los días 17 al 28 de Diciembre pasado.

Es para nosotros una satisfacción ver, que en el medio agrícola guipuzcoano se inicia el deseo de exponer y apreciar públicamente sus problemas, pues el firmante Sr. Aristizabal, nacido y formado en el medio agrícola, continúa viviendo en dicho ambiente, por lo que necesariamente siente personalmente sus problemas. Es él, pues, quien nos los expone y los critica o analiza con su propio criterio. Por ello hemos considerado de interés el publicarlo en este número de MUNIBE.

¿Basetxea edo baserria?

Eztakigu noiztik datorren, nekazaria bizi dan etxeari, baserria deitzeko oitura; eta oraindik gutxiago, zer arrazoi izandu zuten gure aurrekoak, nekazaria bizi dan etxeari baserria deitzeko. Guk dakiguna da, erria, eliz barruti, ta Ayuntamiento batek, elkartzen dituan, etxe sall bati deitzen zaiola; eta baserria, etxe bakarra izanik, basetxea deitzea egoki litzakela derizkiot. Dana dala, nik lengo oiturari jarraituaz, baserria deituko diot.

Euskal-iztegian, oso itz gutxi baitago, bera baño gozo ta agurgarriagorik. Baserria degu ba, Euskerazko izenik bikañenetako bat; bera da gure izkuntzaren zaitzale eta itxaropena, kristautasunaren babesa, oitura garbien gorde lekua, sinismenaren lorategi, abar ta abar.

Ezta ba arritzeko, zentsudunak diran gizonak, baserriaren berakoa, begi txarrez ikustea; baserria lurretan bazaigu Euskaldunen izatea, galdutzat eman dezakegu. Orregatik naiz agintari, naiz Euskal-idazle, iratizlari ta abar, baserriaren alde jokatzea, ezta ba arritzeko.

Ni ere baserritarra nazute, eunetik eun baserritarra. Nere guraso, aiton eta aitonen aitonak baserrian jayo, bizi, ta illak dira; nere abizena, «Aristizabal», badirudi zugaitzez egiña dala. Orregatik, baserritar asko bezela ezjakiña, ikasi gabia, jakinduri gabia nazute; bearrak erakutsi didan pittin bat besterik ez dakit; baña, esaten danez, ezjakin batek bere etxean geyago omen daki, jakintsu batek bestereanean baño. Orregatik, nere jakinduri pittini, nere ondar alea, baserriaren alde jartzera ni joakizute.

Euskal baserria, goitik beraka dijoakigu. ¿Zer dala ta?... Ara. Beste nazioetan nekazaritza buruz, aurrerapen aundiyak egin dituzte, eta gu, len bezela gaude. Amerika eta beste erri askotatik, guk emen eginta baño merkeago, gauza asko datozkigu.

Orregatik, emengo baserritarra, lanian gau ta egun ari ta ere, bear ainbat irabazi ezindu atera.

Ara or, gure baserriak ustutzeko zerdalakoa.

Gañera, naiz ta baserritarrak beste errietako aurrerapenak artu, aiek bezela ezin dezakegu lan egin. Batetik, gure baserri askok, sall txikitxuak, eta batez ere aldapatsuak dauzkate, beste erritan ibiltzen dituzten tresnak sartzeko (traktore, segadora ta abar). Bestetik, giroak ere aldatu bearko lirake eta ori ezin da; oraindik gizonak ezdu asmatu orrelako aurrerapenik. Eta... ¿Baserritarren berekoitasuna, ezalda aldatu bear?...

Gai ortaz asko itzegin da, geiegi. Baserritarra berekoya omen da. ta... ¿Zer egin da orañarte, berekoitasun ori kentzeko?... ¿Zenbat «Escuelas de formación profesional agrícola» dauzkate baserritarrak, beren lurretan nola lan egin erakusteko?... Obe luteke orrela itzegiten dutenak, lepuan gañian burua baleukate. Baserritarrari berekoitasuna, beren gañetik daudenak eman diote: ez berez eroskorra dalako.

¿Zergatik ezta baserritarrentzat jartzen, beste lantegietan lan egiten erakusteko jarri diran ainbeste «Escuelas de formación profesional»? Orduan bai, joango litzake baserritarren berekoitasuna. Baserritarra, edozein bezin buru argi, ta biotz onekua da.

Betoz ba, «Crédito agrícola» deritzan estaduaren laguntzak; baña ez, traktoreak eta segadorak erosteko; baserritarrai beren lurretan nola lan egin erakusteko baizik. Gutxienez, bost ikastetxe bear dira Gipuzkoan; bat, Donostitik Irun bitartean, eta beste lauak, nai dezuten lekuan,

Baserritarrak burua jasotzeko, iru ate iriki bear zaizka. Bi ateren giltzak ematen bazaizka, irugarrena berak artuko du.

Ara emen lenengo giltza

Igali edo fruta zugatzak

Donosti ta Gipuzkoa'ko beste errietan, millaka tonelada igali edo fruta sartzen da, beste errietatik; tonelada oyek diru biurtuta, aberastasun izugarriya noski. Bada, emengo baserritarrai, igali zugatzak nola aldatu, kimatu, eta zaitzen erakutsiko balitzayo, emen Gipuzkoa'n bear litzaken igali edo fruta, bertan sortuko litzake, ta barazkiak zer esanik ez.

Azkeneko bi urte auetan, Donostiko «Caja de Ahorros Municipal»ek eratu-ta, Getari'n egin da erakusketa.

Egintza txalogarria benetan; baña sayo txiki oyek, gaitz gogor bati berrogei indiziño bear, ta bat ematia bezela da; gaitzak bere bidea eramango du. Baserrietan gaur sortuta dagon gaitza, ez da indiziyo batekin sendatzekoa, berrogei bear ditu gutxienez.

Bigarren giltza

Gaztañak eta txerriyak

Gaur baserritarren etsai gogor bat, piñua degu; piñuak, irabazi aundiyak ematen omen ditu; baña, ez baserritarrentzat, lenago sake-lak beruak dauzkatententzat baizik. Orratik ez beti...

Lengo jelate aundi artan, etzuten sakelik asko gizendu. Baserritarrak bai, su-egurra ugari izan zuten. Eta, ¿Nork-daki, Jaungoikoak emengo gizenputzai, piñurik ez litzakela aldatu bear erakusteko bialdu ez ote zigun?... Dana dala, orrelako jelate bat ogei urtez bein, ez litzake gaizki etorriko.

Japon'go gaztaña, emengo lurretan oso ongi dator.

Ambolatxa obe; baña, mota onek, bere zañetan gaitza dakar; alaere orregatik, mota ori gallendu eziñik ezdago.

Japonguak, zañetan ez dauka gaitzik, eta anbolatxakin txertatu, ta nai bezelako gaztaña izango litzake.

Gaztaña txarra omen-da jateko... Arako gurdi pirrillaren antzeko ogiya jaten genduanian, pozik jango zan gaztaña. Eta, kontu eman,

oraindik orrelako beste garairen bat etortzia; etorkizunari begiratzen badiogu, oso illun eta beltz ikusiko degu; gizonak, batek-bestia galtzeko, batek-bestia ondatzeko, ikaragarritzko aurrerapenak egin dituzte; badirudi, odolezko ugalde izugarri batean erortzeko arrixkuan gaudela. Eta orrelako bat etorriko balitz ¿Zer izango litzake onena, piñua edo gaztaña?...

Piñuak eragozpen bat badu baserritarrentzat, udazkeneko lanik geyena dan garayean etortzen dala eta gaztañak, lan bat geyago... Zentsudunak izan gaitezen; lanian lertzen ari-ta eztegu ezer aurreratu-tuko, morroyak jarri lanian ta kito.

Morroyak

Igalitan, aberastasun aundiya sartzen bada Gipuzkoa'n, txerrikitan sartzen danaz, beste orrenbeste esan dezakegu; asi urdai, urdaiazpiko, saltxitxa, lukainka, gantza, abar ta abar. Bada gaur, Gipuzkoa'n dandan piñuen erdiyak gaztañak balira, ta len aitatu ditugun morroyak lanian jarri, aberastasun izugarri ori, bertan sortu eziñik ez legoke. Ara or baserritarra, lurrari joka lertzen ari gabe, burua jasotzeko era. Ez det esan nai onekin, mendi guztiyak gaztain jarri bear dirala; mendi batzuek ez dira gaztaña egiteko lur aukerakua dutenak; baña, bai egin liteken lurretan, eta etxe inguruetan; baserritik bi kilometro inguru, ez litzake piñurik jarri bear, non ta gaztaña egiteko, lur aukerakua bada beintzat...

¿Zeñek emango ote luke irabazi geyago, piñuak ala txerriyak?... Ayuntamentuak, beren lurretan gaztaña jarri, ta txerri bakoitzari, ogeitamar peseta zerga jarri, nik dakitan erri batean, ardi bakoitzari kentzen zayon bezela ta... ¿Bai ote da piñurik, orrenbeste emango lukenik?

Irugarren giltza

Zuñiga

¿Zer da Zuñiga?... Munduko erri-muga guztiyai eragin diyen izen bat. Naparruan, Estella'ko onduan dagon erri bat degu Zuñiga. Beti orrelako gertaerak Japon edo Sangai'n gertatzen dirala mintzatzen diranentzat, erantzun ederra; emendik arrikada batera baitago. ...¿Zer dala-ta zabaldu da izen ori mundu gutzira?...

Lengo urteko Iraillar'en amabostian, «Vida Nueva» deritzan aldizkari batek berri eman zuan... Zuñiga'n, «Santa María» deritzan nekazarien elkarte bat sortu da; eta elkarte orren bitartez, 63 etxe-jaberenlurrak, bat egin ta gelditu dira. Dirudinez, emen etzan iñor konturatu; beintzat, lenbiziko berriya, «Spanish-Amerikakan-Trade», ipar amerikako aldizkari batek eman zuan; bai ta Brasil'ko Irate-txeak ere, Naparruako erri ortako elkarte jayo berriyaz itzegin zuten.

Bañan oraindik zer-ikusi geyago duana; lengo jorraillean, Itali'n, F. A. O. deritzan Europa'ko nekazarien batzarrean, Frantzi'ko ordezkariak, Españi'ko ordezkariari, azaldu zezala guztiyen aurrean, Zuñiga'n gertatua, eskatu ziyon.

Irurogei ta bi baserritar, sendi bat balitz bezela elkartuta gelditu dira; 62 baserritarren lurrak, jabe bat bakarra dute, «Santa María» deritzan elkarte. 1958'ko Urrilla'ren 6'tik aurrera, ango lurrak, makina ta gauza guztiyak, denenak dira. Egun ori, Zuñiga'ko kondairaren mugarri bat bezela da; egun ortan, bertako erretore D. Florentino jaunak, lenbiziko «traktorea» onetsi ta lengo lur muga guztiyen gañetik, igaro zan, lenbiziko zoya irauliyaz. Mugarri guztiyak lengo tokiyan lurperatuak dira, egun edo bider, elkarte urratuko balitz ere.

Baserritar bat bakarra ez da sartu elkarte ortan, D. Angel Martinez. Galdetu diote, elkarte orren etsaya dan, eta ezetz erantzun du; maixterra dala, eta baserri jabea atzerritarra izanik, eragozpenak izandu dituala esan du. Baña toki guzitan mingain luzeak izaki. Elkarte orrentzat ere esan dute, komunistak dirala, Fidel Castro'ri ikasi ziotela, Rusi'ko «Koljoces»en antzekoa dala, ta abar. D. Angel Martinez'ek erakutsi die mingain luze oyei, 62 baserritar beren nai ustez ekartu dirala; eta iñork beartu balitu, bat bakarra etzala kanpuan geldituko.

Len ziran lanerako idi, mando ta abar, denak kendu dituzte; ta bi traktore bakarrik aski izandu dira, lur lan, egur ekartze, ongarrri zabaltze simaur ta abar; etxegintzako bear diran gai guztiyak ibilli, eta beste lanak egiteko. Orduan 500 kilo igotzen dituan errota bat jarri dute, berak nai bezelako pentsuak egiten dituzte. Ogeitamar metro luze, ta amar zabaleko etxe bat jaso dute, lanerako tresnak gordetzeko; bere 5.000 litro'ko gasoil ontzi batekin; ontzi ori «Camps»k ornitzeko bere gañ duala. Oraingoz, beren uztakin nasketaz osatutako pentsuak egin ta saltzeko ikasketak egiten ari dira. Eun ta berrogei zaldiko tximixt-indarra sortu dute, beren argi ta gañerako bearrak ornitzeko. Lenago batere etzan tokiyan, 300 ardi jarri dituzte, ta gizentzeko ta esnetako abereak, bei, txokor ta abar, len alako bi.

Zortzi orduan bakarrik lan egiten da; neguan zazpi eta lenbiziko uzta artu ondoren, Naparrua'ko «Reglamento de Trabajo»k agintzen

duan alako bi lan sari jaso dute; gañera jayak ordainduak, ta uztan ta eguarritan sari bereziyak, ta zortzi eguneko jayak.

Emakumeak kendu dira lur lanetik; zarrak ez dute lanik egiten, ta zartzaro sariya badute. Umiak, nola ez diran lanerako bear, amabost urte arte eskoletan ikasi dezateke, eta «Bachillerato elemental» egiteko bidean dira. «Salon parroquial» etxea jaso dute, bere liburutegi, aldizkari berezi, elizgai, ikasgai ta abar.

Beren jolasetako, naiz sendi begiratze ta abar, asti geyago daukate. Elkarteko batzordeen eten gabeko billeratako, naiko asti badute, naiz ta denak nekazariyak izan. Eta ori guztiya jayotako urtian... Azi, ta ibiltzen asten diranean... ¿Zer ez dute egingo?

Esaera danez, anai batek besteari laguntzen dion sendi bat, ormaz inguratutako erri bat bezela dala. Zuñigan, 300 anai ta geyago elkarri laguntzen ari dira. Orra ez da erri bat, sendi sendo ta indartsu bat baizik.

¿Guk, beste orrenbeste egin ote dezakegu?... Oraingo ez noski. Baserritarrai berekoitasuna kendu arte, gure elkarte auxe bear litzake.

Gipuzkoa'n, orañ dauden piñuen erdiyak gartzain jarri, eta morroyak lanian; eta onako onelako.

Txerriki-Ola

Eta Gipuzkoa'n bear dan, eta kanpotik datorren txerriki guztiya, bertan sortu. Orra or, baserritarrak burua jasotzeko, era egokiya. Ortik aurrekoa berak egingo du.

Baserritarrai, eskolan bidez, berekoitasuna kentzen zayonian, orduan bai, Zuñiga'n egin duten erako zerbait egin eziñik eztago; eta ez an bezela erri batean bakarrik, Gipuzkoa guztiyan baizik.

Erri bakoitzean, sortuko litzake baserritarren elkarte, eta erri guztiyak elkartuko litukean, nekazari elkarteen batasuna Donosti'n. Erri elkarteen batasunak, batzorde bat izango luke.

Erri elkarteko ordezkariakin ornitua; eta orixe izango litzake, Gipuzkoa guztiya elkartuko luken sendiaren zaitzale ta zuzendari; ta nekazari guztiyak bata bestien anai. Ogeibat milla anai elkarri laguntzen.

Eta orduan, ez litzake orañ bezela lan egingo; orañ, baserri bakoitzak, bere lur sall bat, uzta bakoitzarentzat berexita dauka; arto,

gari, babarrun, abere janari, ta abar; orduan, bear bada bata-bestien inguruko ogei, berrogei, edo irurogei baserritako lurak, arto edo gari jaraiko lirake; eta beste baserri sall bat, abere janaritako; beste sall bat igali zugatzetako, beste asko baratz lanetako, ta abar. Makinaz lan egingo litzakela, esan bearrik ez dago; lurak analizatu, eta bear diran ongariyak emanaz, eta orrela jokatuaz, lanak erreztuko lirake; eta baserritarrak ez luke eguzkitik eguzkira lan egin bearrik. Eta orduan, lurralde guztiko probintzirik aberatsena izateko, beldurrik ez legoke.

Ori ez litzake probintzi bat izango, sendi sendo ta indartsu bat baizik, «Kruschef» berari, bere gudarozte ikaragarri ta guzti, beldur emateko añakoa.

BUKATZEKO

Baserria jaso nai badegu, ez gaitezen asi tellatutik; zimendua artu dezayogun ongi, ta poliki-poliki jarrai aurrera. Len esan diran bi giltza oyek, ez lirake zimendu txarrak; irugarren giltza, «Zuñiga», tellatua izango litzake; ori, etxea jaso-ta eman bear da, eta baserritarrak beren gañ artuko dute.

